

Ilazki Gainza Giraldo

KALAKARIA



ALDAKETARAKO PAUSOEN LAGUNTZAILE

Giza zientziak eta komunikazioa ikasi arren, kazetaritzako presioa eta presak baztertzea erabaki zuen eta berdintasun arlora bideratu ditu bere bizitza eta proiektu profesionala. Langabezian, ez aurrera ez atzera “denbora gehiegi” pasa ostean, Kooperatzen espazioa bere ametsa zenaren laborategi bilakatu zen. Bakarrik bidaiatzen ikasi duen bezalaxe ikasi du kooperatiba bat martxan jarri eta aurrera ateratzen. Bi urtez Mexikon bizitzeko esperientzia bildu arren, Euskal Herria du “lindo” eta “querido”.

“Edozein proiekturen garapena norbere emozioei helduta doa. Sentimenduek edozer baldintza dezakete”

Berari aldaketak asumitzea kostatzen zaiola aitorturik, jendartean hain errotua dauden hainbat ohitura aldatzeko asmoz sortu zuen Kalaka proiektua Ilazki Gainza Giraldo (Donostia, 1986). Nerea Uria Gigorro lankideak eta biek aholkularitza, diseinua, komunikazioa eta formakuntza feminista eskaintzen dituzte. Motxila lan esperientzia eta konfiantzaz beterik, ilusioz begiratzen du aurrera Gainzak.

AITZIBER ZAPIRAIN **IRANTZU PASTOR**

Kalaka, kalakarako tresna bat baino gehiago da ezta?

Saiatzen gara! Komunikazioa eta berdintasuna ardatz harturik zerbitzu batzuk eskaintzen hasi ginen orain dela sei urte. Denborarekin ordea, egoera eta beharren arabera, zerbitzu horiek zehazten eta gartzen joan gara eta azken urteetan berdintasun planak, formakuntzak, aholkularitza, komunikazioa eta diseinua eskaintzen ditugu, besteak beste. Uztargarriak diren edo uztargarriak egiten ditugun arlo ezberdinak dira. Mimos egiten dugu lana. Bezeroa enpresa handia edo txikia izan, kooperatiba hasi berria edo komunikabidea, gure jarrera berdina izan ohi da. Taldera egokitu eta haien helburua betetzeko egiten dugu lan.

2015ean sortu ginenetik urte bakoitza erronka eta sorpresa ezberdinez beterik agertu zaigu. Gure aldetik dena ematen dugu, denak aurrera egin dezan. Garapen bidea oso polita izaten ari da, aberatsa, baina baita gogorra ere. Iaz, adibidez, Pausso izeneko egitasmoa ga-

ratu genuen Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat, beste kooperatiba batzuekin elkarlanean. Txiki sentitzen ginen horretarako, baina lortu izanak konfiantza handia eman digu.

Gero eta talde gehiago daude halako zerbitzuak eskaintzen. Zaila da lekua egitea?

Bai, oso zaila da. Gu oso txikiak gara, bi lagun besterik ez. Baina gainontzekoekin elkarlanean aritzeko gogo eta beharra sumatu dugu hasieratik. Lehiaren izenean ateak itxi ordez, eskuak batuz ateak zabaltzen direla uste baitugu. Horrez gainera, gurea proiektu feminista izango zela argi genuen hastapenetik, eta osasun izurriteak hain modan jarri duen “bizitza erdigunean” leloa hasieratik aplikatzen dugu. Hori da gure oinarria. Norberaren erritmoak errespetatzen ditugu, izan lankideenak ala bezeroenak, ez dugu inor ez ezer bazterrean uzten. Eta uste dugu bezeroak hori sumatu eta eskertu egiten duela.

2017an elkar entzun eta laguntzeko helburua duen Ekion ema-



"Elkarrizketarako hutsunea somatzen dut nik. Topaketa handietan eztabaidak ematen dira, baina egunerokoan ez dago horrelakorik. Kontzientzia izatetik harago urratsak emateko hautua egiteko eta bidea zinezkoa izan dadin solasaldiak behar dira".

kume ekintzaileon sarea sortu genuen, gure arteko iritzi, aholku, euskarri, baliabide eta esperientzien trukaketak euskaraz egin ahal izateko. Gure proiektua garatzerakoan faltan sumatu genuen espazioa da. Emozioek garrantzia handia dute lan honetan. Norbere emozioei helduta doa edozein proiekturen garapena. Sentimenduek edozer baldintza dezakete. Beraz, elkarren eta norberaren zaintzari garrantzia ematea ezinbestekoa da Kalakan.

Zein da formakuntza feministaz duzuen esperientzia?

Azken urteetan modan jarri dela dirudi. Gaia normalizatu egin da eta politikoki zuzena da berdintasunaren alde egitea, baina zoritxarrez errealtatea bestelakoa da. Formakuntza saioetan erresistentzia askorekin egiten dugu topo. Beti uste dugu besteak direla matxistak eta gurea jarrera egokia dela. Halako saioetan, ordea, berehala ohartzen gara oker gaudela. Gaur egun, kontzientzia feminista izatea ez da nahikoa. Enpresa edo erakundeekin jarduten dugunean, entitatearen marka ahaztu eta bertako langileekin, pertsonekin aritzen gara.

Enpresak baino pertsonok ekin behar dugulako. Hortik hasten da aldaketa.

Emakume zuri eta mendebaldarrok ere baditugu pribilegioak...

Horren inguruan ezagutza falta handia dagoela esango nuke. Batzuetan ez dakigu pribilegio horiek zein diren ere, baina ezin ditugu inola ere alde batera utzi. Elkarrizketarako hutsunea sumatzen dut nik. Topaketa handietan, mahai-inguruak eta eztabaidak ematen dira, baina egunerokoan ez dago horrelakorik. Sare sozialetan ere bakoitzak gurea botatzen dugu, pantailak eskaintzen duen distantziatik, baina non dago parez pareko solasaldia? Horrek eman ohi ditu fruituak. Kontzientzia izatetik harago urratsak emateko hautua egiteko eta bidea zinezkoa izan dadin solasaldiak behar dira. Pribilegioen kontua erresistentziaz beterik baitago. Hala ere, zu eta ni honen inguruan aritzea, ondoren norbaitek irakur dezan, bada zerbait.

Hezkuntzan jartzen da pisua baina harago ere badago zer eginik, ala?
Eskoletan eta ikastoletan berdintasun

planak garatzen ditugunean "ezin dugu dena egin" esan izan digute, eta egia da. Berdintasun plana dago batetik, baina baita ingurugiroa, euskararen zabalpena, inklusibitatea... Borondate ona ikusten dugu hezkuntza zentroetan, baina gainezka daude. Hezkuntzatik kanpo ere badago non eta nola ekin gainera! Aisialdian, etxe barruan... Haurrei liburu bat eskaintzean, idazlea emakumea izan dadin saia gaitezke, gauza bera film edo teleailekin. Emakume sortzaile ugari dago, erreferente bilaka ditza-gun bada! Denona da ardura.

Edozein talderentzat balio dute berdintasun planek?

Entitate bakoitzaren egoerara egokitzten gara. Enpresa txikiek, adibidez, ez dute derrigorrez berdintasun plan handi bat egin behar. Askotan saio batzuekin nahikoa izaten da. Asko aurreratu daiteke txikitik hasita, tailer praktikotik gutxierekin. Gogoia duenak egiten du ahalegina. Taldean kafea hartu ostean kizarak garbitzea eta bileran hitza errespetatzea, adibidez; tontakeriak dirudite, baina oraindik ere hauxe da errealtatea Euskal Herrian ere. ●